Basque Writing 15

EGUNA

Euskarazko Kazetaritzaren epopeia

Bilbo bonbardatua, 1937, Robert Capa

Basque Writing hau oso berezia da guretzat. Gure aurretik, unerik eta egoera gogorrenean euskarazko letrak landu zituztenei egindako omenaldi txiki bat da, urte oso baten egindako ekimenak laburbiltzen dituena, halaber. Duela 80 urte, Europa hondamendira bidean zela, eta Espainian gerra anker bat abiatuta, ordura arte ezinezko zena egiazko bihurtu zuten: egunero argitaratu zen egunkaria egin eta argitaratzea. Gutxi iraun zuen, urte erdi baino gutxiago, eta Euskal Herrian libre zen eremuan baino ez zen argitaratu, baina epopeia itzela izan zen 1937ko lehen egunetik faxismoak Bilbo hartu zuenera arte bizitako.

EGUNA, 1937ko urtarrila-ekaina

Zortzi hamarkada geroago, eus-karazko kazetari-tzarako mugarri hori gogora dakargu. Duela bost urte, 75. urteurrenarekin, Gernika izan genuen gogoan: Condor Legioak bonbardatutako euskal hiria Picassoren margoak ezagutarazi mundu osoan, eta guretzat, berpizkundearen hondamendia irudikatu zuen: ordura arte sortutako literatura eta kultura oro har faxismoaren menpe itzaltzea. Estepan Urkiaga Lauaxeta euskal poetaren fusilamendua horren adibide argienetakoa. Lauaxeta bera izan zen EGUNAren sorreran buru-belarri ibili zirenetako bat. Gerrako kazetaritza egin zuten, noski, egunero frontean zabaldu beharrekoa eta euskal gudariak adoretzeko testuekin, baina askoz gehiago ere bazekarren EGUNAk: gai sozialak, kontakizunak, literatura, kontakizunak, baita nazioarteko gaiak ere.

Euskal PENetik euskarazko kazetaritzan muga-rri izan zen kazetari hari eta haren egileei omenaldia egin behar geniela ikusi genuen. Beste hainbat erakunderekin batera ekimen ugari antolatu ditugu urte osoan zehar, EGUNA zer izan zen ulertzeko, hura non egon zen markatzeko Bilbon, orduko testuak berreskuratzeko eta, azkenik, faksimil eder baten jasotzeko, Euskal Herrian zein atze-rrian, diaspo-ran eta interesa duten guztientzat EGUNAren ondarea. *Basque Wri-ting* hau ere horretarako pentsatuta dago.

Urtzi Urrutikoetxea
Basque PEN

EGUNA, 1937

EZINA EGINA

Euskarazko lehen egunkariaren argitalpena, euskaldunon iraganari buruzko narratiban eta historian, mugarria dugu. 1729an, Manuel Larramendik Salamankako unibertsitatean irakasle zela argitaratu zuen lehen euskal gramatika: ezina egina, ***"El imposible vencido"*** izan zen izenburua. Euskara, hizkuntza basatia izatetik hizkuntza kultuen zerrendan sartu zuen, bazuelako arauzko gramatika. Larramendi euskararen apologia egin zuen gazteleraz, kanpora begira, hau da, Espainiako erresuma konposatutako (Spanish composite Monarchy) agintari eta akademikoei begira.

XIX mendean barrena koplak eta bertsoak paperean inprimaturik argitaratzen ziren inguruko gertaerak azaltzeko. Almanak edo "egunkariak". 1848an, Baionan, Agustin Chahok ***Ariel*** aldizkariaren eranskin gisa ***Uscal Herrico Gaseta***-ren bi zenbaki argitaratu zituen. Gero aldizkari elebidunak, frantsesez eta euskaraz: ***Le Reveil Basque*** (1886) liberalen ildokoa, gorria eta ***Escualduna*** (1887) zuria, katolikoen aldekoa. Azken honek sortu zuen euskarazko kazetaritza bizkorra eta hizkuntza komunikazio modernora egokitua. 1888an Parisen ***Gure izarra*** emigrante euskaldunentzat hasi zen argitaratzen. Ameriketako Kalifornian ere euskaraz astekariak argitaratzen ziren: ***Escualdun Gazeta*** (1885) ***Californiaco Eskual Herria*** (1893).

EGUNA
Lgo. urtia
1'gn. zenbakija
Idazkolea ta banakolea: Correo, 17' gn.
Saneurrija: 15 eunen
EMEN GARA!!
ZER-ESANAK
Gurutzea, Sabin, Euzko-Ikurriña . . . iru adore - iturburu
Gure lendakarijak itz egin dausku
Azkatasuna..!
"Kirikiño" gomutan dogu
Egunon
Euzkeltzale gartsu genduzanak
Eguna'k urte barri on eta zorijontsu bat opa dautse bere idazle ta irakurle gustijei
Gure ametsa bete degu

EGUNA egunkariaren lehenengo orria: Emen gara!

1895-1899 garaian Bilbon, Sabino Arana eta euskal nazionalismoaren eraginez aldizkarietan euskarazko artikuluak argitaratzen ziren baina gehiena gaztelaniaz: ***Bizkaitarra, Euskalduna, Baserritarra***, ***El Correo Vasco***. Baina, giro berean, R. M. Azkuek 1896an Bilbon ***Euskaltzale*** astekaria euskaraz soilik argitaratu zuen.

Beraz, 1901ean Hendaian euskaltzaleak bildu ziren euskal ortografia behintzat bateratzeko. Aldizkariak hiru euskaretan argitaratzen zirelako: Lapurdi-Behenafarreraren ereduan, Gipuzkeraz eta Bizkaieraz.

Euzkadi egunkaria, euskal abertzaleen eraginez Bilbon 1913an sortu zenean, azalean egunero euskarazko artikulua argitaratu zuen. Euskara ez zen, beraz, bazterreko baserritar eta menditarren hizkuntza. Hiriko biztanle eta irakurleena ere bazen. E. Bustintza euskarazko orrialdearen arduraduna.

1. 1919an, Euskaltzaindiaren sorrera. *Argia* astekaria Donostian

1918an Oñatin Eusko Ikaskuntzen lehen kongresua antolatu zen eta ondorioz 1919an lau euskal aldundien laguntzaz erakunde berria Euskatzaindia sortu zuten. Helburua, euskal hizkuntza bateratua sortzea zen, hau da, euskara standarra, batua.

Iruñean Kaputxinoek ***Zeruko Argia*** sortu zuten 1919an eta Donostian bestalde beste aldizkari berri bat sortu zen: ***Argia*** (1921). Argiako kazetaritzan, B. Garitaonaindiak "Gipuzkera osotuaren" eredua praktikan jarri zuen. Eta 1929an ***Argia*** astekaria egunkarian bihurtu nahi izan zuten: 0 zenbakian argitaratu ere. Baina ***Argia*** astekaria izaten jarraitu zuen Donostian eta Bilbon "Euzko Pizkundia" komunikazio enpresaren bidez, ***Euzko*** (1931) izeneko euskarazko astekaria bizkaieraz argitaratzen hasi ziren, Manuel Ziarsoloren zuzendaritzapean.

2. Gerra giroan, Eusko Jaurlaritzaren eraketa Bilbon (1936)

1936an, Espainiako armadako zenbait militar, karlista eta falangisten laguntzaz, II Errepublika eta demokraziaren aurka altxatu ziren, Euskal Herrian Iruñea konspirazio eta matxinadaren gune nagusi zelarik.

Euskadiko Autonomia Estatutua Espainiako Parlamentuak onartu egin zuen eta 1936ko urriaren 7an Eusko Jaurlaritza eratu zen. Eusko Jaurlaritza sortu eta berehala eguneroko agerkari ofiziala argitaratu zen euskaraz eta gaztelaniaz: "Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa". Agerkari hori, T. Monzonek zuzentzen zuen gobernazioko sailak argitaratzen zuen eta bere inguruan Gipuzkoatik Bilbon errefuxiaturik zeudenak, ***Argia*** eta ***El día*** egunkarikoak itzultzaile lana bete zuten.

3.- Egunaren sorrera 1937ko urtarrilak 1: "Emen gara"

Abenduan, egunkarientzat papera murriztu egin zen eta horren ondorioz ***Euzkadi*** egunkariak orri gutxiago argitaratu beharko zituen.

EAJ-PNVko J. Ajuriagerrak eta Lauxetak euskaraz egunkari berria sortzeko agindua eman zuten eta Euzko Pizkundeko enpresakoek, urte berrian, 1937an, Eguna egunkaria, argitaratzen hasi ziren.

Euzkadi egunkariak argitaratu zuen: "*Eguna, en estos momentos va a cumplir con dos grandes misiones: la mision de la euzkerización de nuestro pueblo y la mision de la cristianización del mismo"* (1937-1.26).

Zuzendaritza eta erredakzio talde propioa zuen. Ildo ideologikoa ***Euzkadi***-rena: Eusko Jaurlaritzaren defentsa eta euskal abertzaletasunaren aldeko ikuspegi katoliko kristaua. Baionan ***Eskualduna*** astekaria euskaraz argitaratzen zena, kristau katolikoa ere, baina karlisten aldekoa, Franco eta Mola jeneral errebeldeen aldekoa.

Manuel Ziarsolo zen ***Eguna***-ko zuzendaria, lehenago ***Euzko*** aldizkariarena izan zena eta aldizkari horren eragina nabaria da ***Eguna*** egunkari berrian. Beste kazetariak, gudari izateko deituak, gazteak beraz: Zuzendariordea Agustin Zubikarai, ondarrutarra 21 urte. Erredakzioaren ardura guztia berea zen eta bertan bere beste kazetari lankideak ziren, Eusebio Erkiaga (Lekeitio) Jose Mari Arizmendiarrieta (Barinaga-Markina) eta Alejandro Mendizabal (Mutriku). Kazetari gazte hauek Gasteizeko elizbarrutiko apaiztegian euskaltzaletu eta euskaraz alfabetatu eta trebatu ziren, Erkiaga izan ezik. J. M. Arizmendiarrieta Kar-daberaz bazkunako eragile kementsua izan zen. Gero Arrasateko kooperatibismo industrialaren eragile nagusia izan zen. Beste kazetari eta lankide batzuk, Gipuzkoakoak ziren eta ***El Dia*** egunkariko euskal atalaren arduradunak. *Euzkadiko agintaritzan* lanean ari ziren, testuak itzultzen: Andres Arzelus, Txomin Arruti, J. Insausti, I. Eizmendi "Basarri", Fausto Leunda, Andoni Arozena. Beste batzuk, gudariak ziren eta guda-oinetatik albisteak bidaltzen zituzten. Horrez gain, euskaltzale ziren emakume eta gizonen idazlanak argitaratzen zituzten. Ezinezkoa zirudiena egina bihurtu zuten.

Manuel Ziarsolo, EGUNAko zuzendaria

Egunkariaren egitura narratiboari dagokionez, atal desberdinetan banaturik ageri da. Ez da egunkari propagandistiko hutsa, egunkari profesionala zuten helburua. Lehen hiru hilabeteetan horrela izan zen. Martxoaren 31n, Mola jeneral faxistaren erasoaren ondoren, gudako albisteak ziren nagusi.

Lau orri eta batzuetan sei orriko egunkaria zen eta honako atalak zituen:

- Egunekoa: Editoriala zen.
- Izenburuak: izenburuak garrantzitsuak dira, Eusebio Erkiagaren ardura zen.
- Albisteen egitura: Agentzietako berriak hartzen dituzte eta itzuli edo moldatu. Jendarteari begirako kazetaritza lantzen zuen, argazkiari berebiziko garrantzia emanez. Iritzizko kazetaritzak garrantzia zuen eta aldi berean literaturak, idazleak eta bertsogintzak isla nabarmena zuen. Beraz egunkariak egitura berritzailea zuen, garaian garaiko egunkarien ildokoa.
- Berriak: Euskal Herrikoak, tokian tokikoak eta atzerrikoak adierazten dira.
- Guda oinetan eta Euzko zaingoetan: Gudaldiaren berri erakusten zuen.
- Beste egunkarietan argitaratzen zenaren laburpena.

Horrez gainera ageri dira beste atal bereziak: "Jel Azija", "Jaungoikoa eta Lagizarreko" (Jel) doktrina abertzalearen erakusle zen. Basarrik "nere bordatxotik" izeneko atala zuen, eta "Kaleko marmara" J. Insausti "Uzturrek"

- Marrazkiak eta argazkiak: argazkien bidezko kazetaritza burutu zen eta marrazkiak ere ageri dira. J. M. Uzelai eta Arrue anaien pintura lanak zabaldu ziren. Karikaturak ere lantzen ziren eta azpiko iruzkinak zuzendariarenak ziren, M. Ziarsolo, Abeletxerenak.

Publizitaterik ez da ageri.

Euskarari dagokionez, erredaktoreak Bizkaia-Gipuzkoako mugaldekoak ziren. Bi eredu erabiltzen zuten: Gipuzkera osotua, Euzkadiko Agintaritzan nagusi zena eta Bizkaiera osotua, sabindarren eredukoa.

Bilbon eta inguruko herrietan saltzen zen baina, batez ere, gudarien artean banatzen zen.

139 zenbaki argitaratu zituzten, azkena 1937ko ekainaren 13an.

4.- Egunaren diskurtso politikoa

Euzko Alderdi Jeltzalearen (PNV) ildokoa zen bete betean, ageri agerian ez azaldu arren:

1.- Antifaxismoa eta askatasun demokratikoak.

2.- Euskal herritarren askatasunaren alde euskal abertzaletasunaren bidez.

3.-Euskal hizkuntza abertzaletasunaren muina zela aldarrikatu zuten.

4.-Kristautasun katolikoa. Hierarkia katolikoa faxisten alde egin zuenez gero, herriko abadeen joera goraipatzen zuen.

5.- Eusko Jaurlaritzaren defentsa sutsua. Kultura saileko J. M. Leizaolaren babesa zuen eta sarritan ageri dira gobernuko kideak.

6.- Baserritar eta arrantzaleen aldeko berriak eta artikuluak. J. M. Arizmendiarrieta edo Txomin Arrutik baserritarren kezkak eta arazoak aipatzen zituzten. Gizarte auziaz artikuluak argitaratu ziren baina industria giroko langileak ez dira aipatzen.

Laburbilduz

Eguna-ren lehen orrian lehen zenbakian, editorialean argi eta garbi adierazten da ezinezkoa zirudiena, euskarazko egunkaria, egina zegoela eta horrela "hemen gara" aldarrikatzen dute. Euskaltzale guztien ekimen bateratua izan zen eta gerrari beste zentzua eransten zion: Antifaxismua aurkako gerra, Euskadiko askatasunaren aldeko gerra bihurtzen zuen.

Frankistek Bilbo okupatu zutenean 1937ko ekainaren 19an, *Eguna*ko kazetariek errepresioa jasan zuten. Batzuk atzerrira alde egitea lortu zuten. Besteak preso. Egunan kazetari izatea delitua bihurtu zuten.

Joseba Agirreazkuenaga
UPV-EHU. Gaurregungo Historiazko Katedraduna

80. urteurrena: Ekimenak

EGUNA egunkaria luzaroan bilatutako lan erraldoi bat gauzatzea izan zen. Oso egoera zailean jaio, gutxi iraun eta luzaroegi euskaraz ez zen berriz eguneroko prentsarik izan. Horregatik, ezin esan batzuek besteek ereindakoa jaso zutenik, berriz ere hutsetik hastearen sentipen horrekin ekin zitzaion 90eko hamarkadan. Baina hor zegoen, askorentzat ezezagun, 1937an egoerarik gogorrenean egindako lana. Eta 80 urte beranduago, ondare aberats horri behar bezalako aitortza egin diogu **Euskal PENek eta beste hainbat erakundek**.

Euskal PEN, Euskaltzaindia, Bilboko Udala, Eusko Jaurlaritza, Sabino Arana Fundazioa eta Deia egunkariaren ordezkariak, hurrenez hurren, EGUNAri plaka jartzen Posta kalean.

Ekimenetan xumeena eta, hala ere, nabarmenetakoa, **Bilboko Posta kalean ezarritako plaka da**. Zoruan dago, EGUNAren erredakzioa zegoen lekuan, Euskal Herriko hiri handienak euskararen historian ere izan duen garrantzia nabarmentzeko. Horrekin batera, hamarkada askoan etendako kate hori nolabait lotzeko ahalegina ere egin dugu, XXI. mendeko euskarazko prentsa eta 1937an egindakoa uztartuz: **2017ko urtarrilaren 1etik ekainera arte, egunero-egunero, orduko artikulu bat argitaratu du BERRIA egunkariak**. Formalki, orduko euskaran, euskalkian eta idazkeran, baina horren gainetik, garaiko kezkak, asmoak, itxaropenak eta beldurrak kontatu ditugu orain, 2017an. Orriotan daukazue orduko poza jasota, egunkariaren sorrera dela eta, baita Durango edo Gernikako bonbardaketen mina ere, edo eta, espainiar faxismoa aurrera zetorrela-eta, Bilboko portutik umeak Ingalaterra eta beste hainbat lekutarantz irten zirenekoa ere. Lehen zenbakiaren faksimil bat ere argitaratu dugu, azalpen txiki batekin, lau hizkuntzatan.

Han eta hemen egindako ekimenen artean, ezin ahaztu **Euskaltzaindian**, Bilbon euskarak daukan beste gune garrantzitsuenetako baten, **EGUNAri buruz egindako jardunaldiak, Sabino Arana Fundazioarekin eta Bilboko udalarekin batera**. Orduko lanetako batzuekin osatu dugu Basque Writing hau ere, orduko epopeia lehendabizi Euskal Herrian eta euskaraz jakin behar delakoan, baina baita mundu zabalean ere.

Jardunaldiak Bilbon: Alberto Aranberri 'Amatiño', Adolfo Arejita, Joan Mari Torrealdai, Joseba Agirreazkuenaga, Juan Carlos Ibarra, Xabier Altzibar, Iñaki Mendizabal, Odile Kruzeta, Urtzi Urrutikoetxea, Idurre Eskisabel eta Javier Onaindia.

80. urteurrena: Artikuluak

Emen gara! [1937-01-01]

Pozez ganezka gatoz eta poz oŕeri eutsi eziñez negaŕa yatoŕku begietara. Ezin dogu ziñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu gozetik gabera.

Amesez ganezka ta itxaropen bixiz gatoz, Euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu eta gure abeŕkidiei atsegin yakezan izpaŕak euzkeraz bakaŕik, argi-argi eta ziatz-ziatz emoteko ustietan agertuten gara.

Negaŕez intzirika, guda zital eta negargaŕian odoltuta argituten dau urtioŕi begira jayoten gara, euzkerearen bixitz baŕi ixateko asmoz. Eta gure jayotza txiruan, oroipenik maitekoŕena dogu gure eŕijaren azkatasunaren aldez euzko-mendi aberatsen gibeletan diñarduen gudari eŕimientzat, eta euzkerearen aldez zintzoro ekin ebelako erailduak ixan ziran euzkel-idazle argi jakintsuentzat gure gorasaŕerik beroena gordeten dogu.

Etxepare'ren ames berberez kutsatuta gatoz. Eta EGUNA biotz, begi eta gogoetan darabilgunok idazle zaŕaren kanta bero ta gaŕtsuz didaŕ dagigu: Euzkera, jalgi adi kanpora! Euzkera, jalgi adi plazara! Euzkera, abil mundo gustira, EGUNA'ren egoetan!

Argal gatoz eta ez baŕitxu. Baña itxaropenez ganezka.
Agur ta erdi, euzkeldunak!
Emen gara!

¡GERNIKA! [1937-04-30]

Inpernua zirudin Gernika gureak gauaren ilunean. ¡Bizi geran arte gure baitan izango dan irudi negargaŕia! Sugar ikaragaŕiak zijoazten luŕetik zerura. Eŕi baten eriotzatzaz mintzo tristean ari ziran sugaŕak. Alboetako mendiak mamoŕutzaŕak iduri. Diran bañore mila bider aundiagoak ziruditen. Sua zan eŕegin. Eŕiaren alde batetik bestera suaren eresia besterik etzenun entzungo. Sua... sua... sua...

Auŕak etzizuten non etzan. Gurasoen begiak negaŕez beteak ziran. ?¿Non dira gure etxeak? ¿Non gure sukaldeko epela?—. Amona zartxoen laŕia... ? ¿Nora joan bear gera? Emen jaio, emen azi, emen bizi... ta orain ¿nora? —. Nonai emakumeak, gizonak, auŕak, aitonak erotu beaŕeko zorian? ¡Nere semea! ¿Non zakust maite? ¡Jaun aundia! ¿Ikusi al dezute nere emaztea?—. Bien bitartean, egazkinlarien begiak jo etzituzten gaxotegietan min-kaŕaxiak sartzen zitzaizkizun belaŕietatik baŕena. ¡Gernika! Bizi geran arte gure baitan izango dan irudi negargaŕia!

Aalik izan banu, Gernika zaŕa sutegi bat zan bitartean, bertara erakaŕiko nituan mundu guziko euskoak. Eta gisa ontara mintzatuko nintzaien: ?Auxe zenuten Gernika, gure azkatasunaren irudi dan eŕia! ¿Nork eman dio su? Eusko batek ez beñepein. Zuetako inortxok ez luke adorerik izango. Norbaitek eŕe... Eusko-luŕetik etoŕiak ziran apika Gernika'ri su eman dioten zenbait egazkin. Baño egazkariak etziran euskoak... Gernika'ri su emateko agindua eman dutenak etziran euskoak. ¿Edo, euskoa endakatua ote da zearo? Baño ez! Eusko-guziak ukabilak jasota izango al dira une trite oietan. Gernika'ri su eman diotenak ez dira euskoak. Doixtar eta italiaŕak dira. Españaŕak saldukeriz erakaŕi zituzten doixtar eta italiaŕak... Euskoak... ¿eta orain zer?

Atzo urten ziren 400 ume [1937-05-22]

Atera dira Santurtze'tik Inglateŕa alderantz lau mila ume euzkotar, paxisten izugaŕikerien igesi. Atzo goizeko sei ta erdietan urten eben Bilbao'ko kaietik, «Habana» ontzian. «Goizeko Izaŕa»n beste 350 lagun atera ziran, ateun bi auŕetik zaintzale zituela, eta «Ciscar» destroyer dalakoa atzetik, lateŕi uretaraño, ta andik auŕerantza, bestetan bezela, ingeles gudontziak zainduta.

Aŕatsalde erdian asi ziran ume taldeak Santurtze'ra elduten, euren zaitzale ta irakasleak lagun zituela. Etzan nolanaikoa, guztiak jagon eta bear bezela atondutea ontziratzean. Alaz ere, lanbide atsegiña ba-zan, gogoz eta astiz egoki burutu eben, oŕatiño. Bakoitzak bere zenbakia zeukan, eta oŕela arazua asko eŕeztu eben.

Agintariak ere pilaka eldu ziran umeakaz, agur egitera eta gertuketa guztiak euren begiz ikusi nairik. Jaurlaritza'ko lendakari jauna, Eŕi-Zaintza, Salerosketa ta Osasun Zaingoetako burukideak antxe ziran, atzeŕitar izparkariak orobat. Oŕez ganera, Inglateŕa'ren ordezkaritzaren lagunak ere bertan ikusi genduzan, euren artean Stevenson jauna. Manning anderea bereziki aipatu bear. Jo ta su, umeak ingeles luŕaldetara emengo aŕiskuetatik atarauta eroaten aspertzeke jardun izan dauan andere onen izena ez dau gure eŕiak iñolaz aztuko. Beronekin batean ditu osagile azkar eta gexozain andere txalogaŕiak ere.

Agurtzerakoan, Manning andereaz itz egin dogu, eta auxe azaldu euskun: Ume pila auek, neure ardurapean utzi dituen umeok, ondo artu eta zainduak izango dirala esan daiket, euren etxietako antzera egongo dirala Inglateŕa'n. Bear dan arte, an eukiko ditugu; ta gudea amaitzerakoan, alik lenen nik opa eŕi zintzo onen garaitza, lau mila umeakin baŕiro Bilbao'ra itzulitea izango neuke.

EGUNA eta haren egileak

***Eguna*, lehen euskal egunkaria (1937), eta haren egileak**

Julene Azpeitia idazlea

1936ko otsailean eskuinak hauteskundeak galduta, buruzagi militar eskuindarrak, faxistak eta karlistak (erreketeak) altxatu egin ziren Errepublikaren aurka, gerra ekarriz eta diktadura militarra ezarriz. Faxistak Nafarroa eta Arabaz jabetu ziren berehala, baina Gipuzkoan aurre egin zitzaien eta irailaren amaiera arte ez zuten menderatu. Kolpisten helburua zen suntsitzea ordura arteko askatasun demokratikoak, langileen eskubideak eta Galizia, Katalunia eta Euskadiren autonomia, eta autonomiarekin batera gaztelaniaz bestelako hizkuntzak. 1936ko urrian espainiar Errepublikak Euskal Autonomia Estatutua onartu ondoren, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Gudarostea eratu ziren. Eusko Gudarostean elkartu ziren abertzaleak (PNV-EAJ, ANV-Euzko Ekintza, mendigoizaleak, STV-ELA), sozialistak (PSOE, UGT), komunistak eta anarkistak.

E. Urkiaga *Lauaxeta* idazlea

Gerrarako tresna gisa euskarazko prentsak izan zezakeen balioaz jabetuta, urte bukaeran Alderdi Jeltzaleak (EAJ) ***Euzkadi*** egunkariko euskal atala egunkari bihurtu zuen, ***Eguna*** izena emanik. 1937ko Urte Berri egunetik ekainaren 13ra arte –Bilbo erori arte– iraun zuen; guztira, 138 zenbaki atera zituen, 4 edo 6 orrialderekin. Bilbon zuen egoitza erredakzioak, eta, uste denez, 8.000–10.000 ale zabaltzen ziren egunero, batez ere fronteetan.

Eusko Jaurlaritzak babestua izan zen, baina autonomia erlatiboa zuen. Gerra egunkaria izan zen: gaiak, idazlan motak eta edukia gerra egoerara egokitu ziren; neguan, fronteak Bizkaiaren mugetan egonkortuta zeudela, informazioa eta iritzia normaltasunez eskaini ahal izan zuen; 1937ko udaberritik hasita, ordea, faxisten erasoldian, editorialak eta propaganda eta agitazio artikuluak ugaldu egin ziren. Erdarazkoak bezalako egunkari *normala* izan zen, euskal kazetaritzaren historian lehen aldiz; hau da, azpiegitura finkokoa eta erredaktore eta kolaboratzaile ordainduak zituena. Irudi ugarik (argazki, zirrimarra, lauki) osatzen eta apaintzen zuten informazioa, egunkariari itxura ederra emanez.

Artikulu honetan idazle garrantzitsuenei buruz jardungo dugu. *Eguna*ko idazleak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren, eta gerra egoeran bere konpromiso bikoitza muturreraino eraman zuten. Idazle gazteak bolondres aurkeztu ziren gerrara joateko, eta nagusiagoek gudariei materialki edota moralki lagundu zieten. Horregatik hainbatek ordaindu zuten bere biziarekin (***Lauaxeta, Aberri, Bortane, Aitza***...) baina faxistek berdin erail zituzten hainbat apaiz eta idazle ere, abertzale eta euskaltzale izatea beste *errur*ik ez zutenak (**Aitzol, M. Lekuona, Markiegi, J. Otaño**...). Beste idazle batzuk heriotza-zigorrera kondenatuak izan ziren edo hainbat urtetan preso egon edo bortxazko lanetan jardun zuten.

Idazle hitza adiera zabalean erabiltzen dugu, literatura lanen egileak nahiz kazetariak zein bertsolariak –bertsoak argitaratu zituztenak– izendatzeko. Idazleen artean bi mota bereiziko ditugu: alde batetik erredaktoreak eta kolaboratzaileak, eta bestetik kronika-idazleak.

Agustin Zubikarai kazetaria

Erredaktoreak eta kolaboratzaileak

Erredaktoreek eta kolaboratzaile ordainduek osatzen zuten *Eguna*-ren bizkarrezurra. Erredaktoreak gazteak ziren. Erredaktoreburua **A. Zubikarai** izan zen (1914). Erredaktoreak, **E. Erkiaga** (1912), **A. Mendizabal** (1915) eta **J. M. Arizmendiarrieta** (1915), azken hau kooperatiben sortzailea eta egun santu izateko bidean. Zuzendaria **M. Ziarsolo** *Abeletxe* izan zen (1902); begiratze lana egiten zuen gehienbat, EAJ alderdiaren konfiantzazkoa baitzen.

Beste inon baino informazio gehiago argitaratzen zen *Egunan*. Gerrako berri ematean, egunkariak arreta jartzen zuen faxisten basatikerietan (bonbardaketak, herrietako errepresioa, emakumeen kanporatzeak, umeen atzerriratzeak etab.) eta gudarien heroismoan. Zirraragarriak dira azken aldiko borroka bizien kontaerak, edo hildako buruzagien gorazarrezko hil-berriak, edo gudari-idazleen kronikak.

Erredaktoreak baino adinez nagusiagoak ziren zortzi kolaboratzaile ordainduak. Heziketa gaiak jorratu zituzten bi emakumek, **J. Azpeitia** *Arritokietak* (1888) eta **J. Gabilondo** *Maitek* (1902). Euskararen irakaskuntza pedagogikoa, idazkera argi eta erraza eta hizkuntza eta literaturaren plangintza hartu zuten hizpide **M. Arruza** *Arrugain* (1890) eta **T. Agirre** ***Barrensoro*** (1898) euskara irakasleek. Gerra egoerako politika gaiak landu zituzten **I. Eizmendi** *Basarrik* (1913) eta **J. Insausti** *Uzturrek* (1912). Gizarte gaiak landu zituen **Tx. Arruti** *Mendi Lauta* (1897) enpresaburu, euskararen bultzagile eta 1928-29an **Lizardi**rekin batera euskal egunkariaren proiektuaren diseinatzaileak; nobela bat ere argitaratu zuen egunkarian, Zarauzko abertzaleen pentsamoldea eta ibilbidea irudikatzen duena.

Egunako beste bi kolaboratzaile *Euzkadi* egunkariko kazetariak ziren: Imanol Enbeita (1884) eta **A. Ruiz de Azua** *Ogoñope* (1904). *Ogoñope* irrati-kazetaria zen Bilbao Irratian, eta Bartzelonako *Euzkadi*ren atalaren arduraduna. Aipatu kolaboratzaile ordainduez gain, ordaindugabeak edo noizbehinkakoak ugariak izan ziren.

Kronika-idazleak

Bi mota bereiziko ditugu: gudari-idazleak eta herrietako kronika-idazleak. Errepublika garaian herriko-kronikagile izan ziren gazte abertzale askok kronikak nahiz bertsoak bidati zituzten frontetik, kuarteletik edo batzokitik. Horietan beren ibilerak kontatzen zituzten, lagunek, herritarrek eta familiakoek haien berri jakin zezaten egunkariaren bidez. Batailoi edo konpainia askotan egon zen bat edo beste, taldekideen bozeramale gisa ari zirenak. Elkarri zuzenduak dira guda-idazkiok, eta guztiei irekiak, bereziki lagun edo herritarrei; horregatik, askotan elkarrizketa estiloan eginak dira.

Aipagarriak dira **E. de la Hoz** *Eguzki* getariarra, **I. Olaizola** *Otarmi* azpeitiarra, **A. Alberdi** *Andoni* mutrikuarra, *Andoni,* Itxarkundia batailoiko errenteriarra, a *Euzkaldunako Gudari Bat* delako tolosarra etab. Gudari-idazle eta kapilau batzuek bertsoak edo olerkiak argitaratu zituzten, esaterako *Basarri,* **E. Uriarte** *Utarre*, *Zulo* eta *Zorrotz bertsolariek*, eta **S. Muniategi** eta **S. Onaindia** *Otarri* olerkariek.

'Basarri'k oroigarri hartzen du 'Aitzol' en eskutik 1935ean

Herrietako berriemaileak gudari-idazleak baino adinez nagusiagoak dira; haien artean ez dira gutxi emakumeak edo Gipuzkoatik ihesi etorriak. Herritarren eta gudarien kontuak dituzte hizpide, izan ere gudariak herriko berrien gose ziren. Aipagarriak dira **G. Gorostiza** *Aixerixa* eta **I. Azpiazu** *Ixaka* elgoibartarrak, **G. Lizaso** *Litargi* errenteriarra eta **J. Urkidi** bermeotarra, ***Errotari*** eta ***Sorkunde*** durangarrak, **J. Bareño** *Belumendu gernikarra*, **E. Bustinza** *Mañariko,* **E. Aginaga** *Ete* markinarra, **E. Enbeita** *Txindor-Kumia* muxikarra eta **Tx. Manterola** *Baserritar Bat* zeanuritarra.

Idazle jeltzaleen soslaia eta haien arteko elkartasuna

Hainbat belaunalditako idazleak elkartu ziren *Egunan*: zaharrenak **Kirikiño**ren maisutzapean hasi ziren *Euzkadi*n (1813-1928), gazteagoak Lauaxetarenean (1928-1936), gazteenak *Egunako* erredaktoreenean. Batzuk EAJkoak, beste batzuk hurbilekoak ziren. Asko STV edo Nekazarien Bazkuna sindikatu abertzaleetakoak, eta Euskal Errepublikaren aldekoak.

Kulturaz, aurreko urteetako Pizkundea ezagututakoak dira, etxean edo herrian jasotako tradizioari jarraipena eman nahi diotenak. Bertsozaleak, antzerkizaleak, musikazaleak eta literaturazaleak. Idazle asko antzerkizaleak dira, are antzezle jardundakoak; gudarien artean zein Gipuzkoan faxistek eraildakoen artean antzezle pila dago.

Gerra garaia izanik ere, literatura bultzatu zuen egunkariak; gainera, Pizkunde garaian Euskaltzaleak erakundeak bultzatutako proiektu batzuei jarraipena eman zien *Egunak*, adib. VIII. Olerki Egunа eta Euzkel Irakurle Batzaren sariketa; azken honek idazle berriak eta batez ere gudari-idazleak plazara jalgiaraztea bilatzen zuen. Idazle abertzaleon arteko kidetasuna handia zen. Gerra baino lehenagotik ere elkar ezagutzen zuten askok, baina gerrak, idazleen erailketek, errepresioak eta atzerriak sendotu egin zuten elkarrekiko atxikimendua.

Ondorio gisa: *Egunaren* egitekoa eta berezitasuna

Gerrateko gertaerak kontatzea, EAJren mezulari izatea eta idazleak elkarrekin, herritarrekin eta gudariekin harremanetan jartzea izan zen *Egunaren* egitekoa. Idazle askoren elkargune eta eragile izan zen, ehundik gora idazleren elkarlanaren emaitza. Egunkari berezia, alderdi horretatik.

Xabier Altzibar
Euskal Herriko Unibertsitatea

EGUNA: min eta miretatik harago

Atzera begiratzen dugun aldiro ugari zamatzen zaizkigu minak eta mirak. Iraganmina, ezagutu duenari egokitzen zaio; ezagutu ez duenari, berriz, mira. Biak ala biak amiltze tentagarriak dira, labarreratze arriskutsuak. Eta, noski, *Eguna* egunkaria zabaldu eta itxi (itxiarazi) zutenetik 80 urte bete diren honetan, minik ez baina mira kasik itsugarri.

Euskal PEN Klubaren ekimenez, *Berria* egunkariak *Eguna*-ren hamaika editorial, iritzi-artikulu eta albiste ekarri ditu aurten, urtarrilaren 3an hasi eta 17an amaitu, asteartetik larunbatera. Sei hilabetez, Armiarmako fakzimilak arakatzen jardun dugu, egunero 4 edo 6 orritako berripaperak irakurtzen eta aurrez ezarritako karaktere-kopuruaren araberako berriak eta iritzi-artikuluak aukeratzen, atontzen eta, orduko moldean, kopiatzen.

Urte hasieran, *Eguna* gogoratzeko eta omentzeko zurrunbiloan, neu ere irentsi ninduen miraren sindromeak. Izan ere, testuinguru ezin zailagoan sortu zuten kazeta: 1937an gerra betean, oso baliabide urriekin eta euskara baturik gabe. Baina, gainera, bultzagileek barne-trabak ere gainditu behar izan zituzten, batek baino gehiagok uste baitzuen egokiagoa zela albiste bakan batzuk ematea *Euzkadi* eta *El Dia* erdarazko egunkarietan. *Lauaxeta,* Lizardi eta beste euskaltzale batzuek, aldiz, garbi ikusten zuten euskara hutsezko kazeta baten beharra. Hartan ibili ziren kazetari Alejandro Mendizabal, Eusebio Urkiaga, Agustin Zubikarai eta Jose Maria Arizmendiarrieta. Eta haiekin batera kolaboratzaile Inazio Eizmendi *Basarri*, Julene Azpeitia *Arritokieta*, Jesus Insausti *Uzturre*, Julia Gabilondo *Maite* eta beste asko.

Urte berriarekin batera jarri zuten martxan egunkaria. Lehen zenbakiek kazetan fijo izango ziren atalak ekarri zituzten: *Euzkadi eŕijetatiko izpaŕak*; *Atzerriko izpaŕak*; *Naskaldija*; *Eritxi-Miritxi*; *Bilbao'ko izparringijak diñuena*; *Euzko guda-oñetan*; *Kaleko marmarra*; *Euzko emakume maitia*; *Españar gudea erbestean*; *Au, ori ta bestea*; *Nere bordatxotik*; *Eguneko jarduna*; *Zeresanak*; *Loretxo eleberri-edestia*; *Eusko lugiñen aldez*; *Argazki ingoskia*... Eta egunero editoriala.

Urtarrilaren 1eko editorialean, "*Emen gara*!!" izenpean, lortutakoaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuten: "Ezin dogu ziñestu. Euzkeltzale ta euzkeldun gustion ames zoro ta ezintzat uste zana, egi ta ixatean biurtuteko agindu zindua artu dogu gozetik gabera". Baita asmo nagusia adierazi ere: "Amesez ganezka ta itxaropen bixiz gatoz, euzkerea erabilkatxa dala uste dabenei arpegi emoten dautsoegu eta gure abeŕkidiei atsegin yakezan izpaŕak euzkeraz bakaŕik, argi-argi eta ziatz-ziatz emoteko ustietan agertuten gara".

Nahi, behar, asmo eta desio haiek ugari agertu zituzten, lehen asteetan batez ere. Editorial eta iritzi-artikulu mordoa idatzi zituzten gaiaren inguruan. Gogorrena, agian, urtarrilaren 3koa, Miguel Unamuno zendu berri: "Unamuno il da euzkerea erabili ta zabalduko daben egunerokua jayoten dan egun berbertan. (...) Bere itzen eta iragarkixun naigabe-tsu ta zitalen aurian *Eguna*'k bere burua agertuten dautso, *Eguna*'k euzkerearen sendotasun eta bixitasuna erakusten dautso, euzkotaŕen izkuntzearen gaitasuna. (...) Goŕotozko itz batik eztogu geure eriotzia iragaŕi ta nai ixan ebanantzat. Bera ilotz geratu da guri bixitza-eguna argitu yakunian".

Eta kezka ere bazegoen. Txomin Arruti *Mendi Lauta*ren artikulu batek ezin gordinago erakutsi zuen: "Ez dakit zenbat iyeki saltzen diran, baño bildur naiz saldu bear litzaken baño gutxigo saltzen dirala. Nik, nai aña ez det entzuten txaidetan ziar. Ez da ere batzoki abertzaleetan. Au bai dala tamala. Neri min ematen dit euzko batzokietan... ¡Bilboko euzko batzokietan! —batzuetan beintzat— ez dakust egunkari euzkeldun abertzalea. Euzko batzoki batean euzkel egunkari abertzalea ez ba dakust nun ikusiko ote degu ba? Uste det *Eguna*'ren zabalkunde arazoa abertzale orok gogor artu beaŕean gerala. Ez dezagun uste izan, orain arte bezela, euzkel idazlanak "por sport" egin bear dirala. Abertzale oro ez gera ba jardun ikastetxe nagusi, ikastolak eta abar euzkeldunak bear ditugula? Bai ote aldezle bikañagorik euzkel egunkari abertzalea baño?".

Baina *Eguna* ororen gainetik egunkaria zen. Eguneroko gertaeren berri eta neurri ematen zuen. Euskaraz gain, gerra zen gai lodia, albiste eta artikulu gehien hartzen zituen. Europak eta, bereziki, ingelesek abandonatu zituztelako ustea aski zabaldua izan arren, kazetan jardun zutenek azken unera arte sinistu nahi izan zuten garaipena posible zela. Eta gai lodiekin gai meheago asko zeuden, bestelako albiste eta iritzi-artikuluak, eta haietan ikus dezakegu zer gertatzen zen herrietan, zer informazio zuten munduan gertatzen ari zenaz (Europako faxismoaren gorakadaz, adibidez) edo nola ikusten zuten emakumea emakume kolaboratzaileek eurek.

Eguna-ren 80. urtemugan oroitzeko ospakizunetan hotsandiko berbak aditu ditugu, meritu latzak aitortu zaizkie gizon-emakume ekintzaile haiei. Eta aitorpena beharrezkoa da, baina irakurketa eta gogoeta ekarri beharko lituzke aldean. Berripaperaren beraren albisteen eta artikuluen irakurketaz ari naiz. Noizean behin Armiarmaren fakzimiletan miatu eta berri txikiez blaitu. Eta, bestetik, hausnartu. Orduko kezkak eta moldeak guganaino heldu baitira palimpsesto gisa, *déjà vu* baten lez kasik: abertzaleen erdarazko egunkariak, euskara hutsezko kazeta indartsu baten beharra... Aski ezaguna zaigu.

Lutxo Egia

Idazlea

Koordinazioa: U. Urutikoetxea
Diseinua eta Maketazioa: L. Mintegi

pen@euskalpen.eus
www.euskalpen.eus

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Euskal Herria- Basque Country